

I - ARABAKO BILTZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

INGURUMEN ETA HIRIGINTZA SAILA

436/2014 Foru Agindua, urriaren 7koa, onartzen duena Ingurumen eta Hirigintza Saileko foru diputatuaren apirilaren 11ko 195/2013 Foru Aginduan ezarritako baldintzak betetzea. Azken foru agindu horren bidez, behin betiko onartu zen Dulantziko udal planeamenduko arau subsidiarioen aldaketa espedientea, eraikinen eta B.11 azpizonen (industria intentsiboa) erabilera ordenantza orokorrean baimendutako erabilera gisa "erregai zerbitzugunearen" erabilera onartzeari dagokiona

I. AURREKARIAK

Lehenengoa. Apirilaren 11ko 195/2014 Foru Agindua bidez behin betiko onartu zen Dulantziko udal planeamenduko arau subsidiarioen aldaketaren espedientea, eraikinen eta B.11 azpizonen (industria intentsiboa) erabilera ordenantza orokorrean baimendutako erabilera gisa "erregai zerbitzugunearen" erabilera onartzeari zegokiona.

Bigarrena. Era berean, 195/2014 Foru Agindu horrek ezartzen zuen, adierazitako baldintzak funtsezkoak ez zirenez gero, haiek konpondu ostean espediente zuzenean igortzea foru aldundira, berriro jendaurrean jarri beharrik gabe, bete beharrekoa zela adierazteko eta hura izapidetu eta argitaratzeko.

Hirugarrena. 2014ko maiatzaren 23an espedientearen testu bateratua sartu zen aldundiaren erregistroan. Testua aztertuta, zenbait alderdi zuzendu gabe zeudela egiaztatu zen; horregatik, udalak, 2014ko ekainaren 17an, uztailaren 14an eta irailaren 25ean, berriro aurkeztu zuen testu bateratua, huts horiek zuzentzeko.

II. OINARRIAK

Aurkeztutako dokumentazioa aztertuta, aipatutako foru aginduan ezarritako baldintzak bete direla egiaztatu da.

Horregatik, daukadan ahalmenak erabiliz, hauxe

XEDATZEN DUT:

Lehenengoa. Ingurumen eta Hirigintza Saileko foru diputatuaren apirilaren 11ko 195/2014 Foru Aginduan, Dulantziko udal planeamenduko arau subsidiarioen aldaketaren espediente onartu zuzenean, ezarritako baldintzak betetzat ematea. Espediente horrek eraikinen eta B.11 azpizonen (industria intentsiboa) erabilera ordenantza orokorrean baimendutako erabilera gisa "erregai zerbitzugunearen" erabilera baimentzen zuen.

Bigarrena. Ebazpen hau ALHAOn argitaratzea, hirigintza araudiarekin batera.

Hirugarrena. Ebazpen honek administrazio bidea agortzen du, eta haren aurka zuzenean administrazioarekiko auzi errekurtsua aurkeztu ahal izango da Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko administrazioarekiko auzietarako salan, bi hilabeteko epean, ebazpen hau jakinarazi edo argitaratu ondorengo egunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2014ko urriaren 7a

Ingurumen eta Hirigintza Saileko Foru Diputata
MARTA RUIZ CERRILLO

Dulantziko udal planeamenduko arau subsidiarioen 1.4.2.11 artikularen 12. paragrafoa aldatzea. Paragrafo horrek AL14 hirigintzako esku hartze areako b11 azpizonan (Usategi industrial) baimendutako erabilerak arautzen ditu.

.../...

12. Baimendutako erabilerak.

a) Erabilera nagusia: industria erabilera, hots, lantegiak, biltegiak eta handizkako salerosketa, eta artisautza eta arte lanbideak.

Era berean, nekazaritza eta basogintza ustiatzeari lotutako biltegiak eta nekazaritza elikagaien biltegiak ere onartuko dira, baldin eta jarduera hori bateragarria bada lantegiekin.

b) Gainerako erabilera baimenduak.

b.1. Bulegoak: beheko solairuan eta lehenengoan onartzen dira, baldin eta ekoizpen prozesuarekin lotuta badaude.

b.2. Txikizkako merkataritza: behe solairuetan baino ez; gehienez ere, 500 metro koadro izango dute eta, gutxienez, 15 metro bidera begira. Lurzatiaren azalera, gehienez, 1.000 metro koadrokoa bada eta bidera begira 25 metro baditu, eraikin eskusiboan egotea baimenduko da.

b.3. Jatetxeak eta tabernak, eta jantoki kolektiboak. Beti eraikin eskusiboan.

b.4. Hotelak eta antzekoak: etxadi eta eraikin eskusiboan edo jatetxe eta tabernekin partekatutako etxadian. Beti eraikin eskusiboan.

b.5. Komunitate ekipamendua:

Dantza lekuak eta diskotekak; etxadi eskusiboan, baldin eta azpizona zona B industrialean badago. Hala izan ezean, hirigintzako esku hartze areako arau bereziak xedatutakoa beteko da.

Zerbitzu publikoak: etxadi eskusiboan edo gainerako erabilerekin partekatuan, baldin eta jarduerak bateragarriak badira.

b.6. Ibilgailuak erregaiz hornitzeko.

Baimendu egiten da ibilgailuak erregaiz hornitzeko erabiltzea, bai eta erabilera horri lotutako zerbitzuak ere, hala nola, bulegoa, auto-garbitzeko makinak eta denda, baldin eta lurzatiak 900 metro koadro eta bidera begira 20 metro baino gehiago baditu. Horrez gain, lurzati horrek, gutxienez, 100 metrora egon beharko du bizitegitarako finkatutako hiru lurzorutik eta ibai eta erreken ibilgutik.

Gainerako hirigintza parametroak lur horretarako orokorrak dira. Eta hura egikaritzeko, xehetasuneko azterlana aurkeztuko da. Azterlan horretan jardueraren azpijarduera bakoitzarako bolumena eta eraikigarritasuna aratuko dira.

Jarduera baimena lortu beharko da obra baimenaren aurretik.

“erabilera hori foru titularitateko bideekin mugakide diren lurzatietan jartzen bada, errepedetarako sarbideei buruz honakoak jasotzen dituen mugaketak sartuko dira: Ministerioaren 1997ko abenduaren 16ko Aginduak, Estatuaren errepedetarako sarbideak, zerbitzu bideak eta zerbitzu instalazioen eraikuntza arautzen dituenak, II. sekzioa. Hiri tarteak.. Erabaki horiek sarbide proposamen batean jasoko dira, ondoren Arabako Foru Aldundiaren kasuan kasuko sailak onarpena eman diezaion.

Erabilera hori bateragarria izango da azpizona horretan baimendutako beste batzuekin, baldin eta eremu horretarako zehaztutako gehienezko eraikigarritasunak betetzen badira.

c) Edonola ere, beti beteko da 1.4.2.2 artikuluko 2. puntuan ezartzen dena eta kontuan hartuko da 1.2.1.3 artikuluan ezartzen dena.”

.../...